# LEZO 10





LEZOKO UDAL LIBURUTEGIA

# «Lezo» 10

## 1993.eko Maiatza

Lege Gordailua: SS/ 274-92
Azalaren egilea: Andoni Treku.
Babesleak: %75 Lezoko Unibertsitateko Udala
%25 Lezoar batek
Fotokonposaketa eta Inprimaketa: ANtzA

# AURKIBIDEA


— HITZAURREA ........ 9

— INTRODUCCION ........ 11

## HISTORIA

1.- «Miguel de Iturain pilotua»
LANDER ZURUTUZA ........ 13

2.- «Lezo Urreiztieta kontrabandista abertzalea»
KARLOS ETXEZURIETA SARASOLA ........ 15

## GIZARTEA

1.- «Koldobike Gezala and: LEZOAR PILOTARIA»
AGUSTINA PONTESTA ........ 19

2.- «La primera de las violencias es la injusticia.. VICTOR FERNANDEZ OCHOA»
RAFA BANDRES ........ 24

3.- «Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren eskaera /Petición de la enseñanza secundaria obligatoria»
8 sinadura ........ 29

4.- «Tráfico de drogas»
LEZOKO ASKAGINTZA ........ 33

## KULTURA

1.- «Paretak mintzo - idazkeraren historiari gainbegirada»
IÑIGO ETXEBESTE ........ 37

2.- «Hablando de radioaficionados en Lezo»
XAXIKO ........ 42

3.- «Arrakasta baten nondik norakoak: Korrika 8»
LEZOKO KORRIKA BATZORDEA ........ 45

## EKOLOGIA

1.- «Oarso-Bidasoa inguruko eraso ekolojiko nagusiak»
LEZOKO EKOLOJI TALDEA ........ 47

2.- «Aurtengo Lezoko zuhaitz eta landare landaketak»
LEZOKO EKOLOJI TALDEA ........ 53

3.- «Lezoko zuhaitz eta landare bereziak»
LEZOKO EKOLOJI TALDEA ........ 55

## SAIOAK

1.- «Gizakia euskal kosmogoniaren zaharraren barruan»
KARLOS BARRENTSORO ........ 57

## LITERATURA

### ● PROSA

1.- «Zer ote du kamamilak?» (eta 2)
ANTTONIO MARI ........ 61

2.- «Ezinezko maitasuna»
LOREA INTXAURRAUNDIETA ........ 66

3.- «Ekainen abentura»
XABIER DORRONSORO ........ 68

4.- «El zapato con ojos»
ELISABETH NUFRIO ........ 69

### ● BERTSOLARITZA

1.- «AEK EGUNAri nere loreak»
MARTZELINO LEGORBURU "Argiñane" ........ 70

2.- «Juan Joxe Sarasolak jarriyak»
"PERNANDO AMEZKETARRAI" (Bertsolariya (1932)" ........ 72

### ● POESIA

1.- «Parisen gaisorik daukagun Marc Legasseri bihotzez eta saminez»
JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN ........ 74

2.- «Elkarrizketa»
MUNTTAR ........ 76

3.- «Horrela goaz»
MUNTTAR ........ 78

### ● ERITZI ARTIKULOAK

# HITZAURREA

Ale berri honekin oinek dituzten behatzak adina dira LEZO aldizkariak kalera atera dituenak. Norberak neur bitza hamar ale hauetan aldizkariak izan dituen gora-beherak, argiak eta itzalak. Guk behintzat aldizkariaren lana gure gain hartu genuenetik ahal bezain zintzoki eutsi diogu aldizkari aberats, kulturazale, lezozale eta jakingarri bat kaleratzeko asmoari.

Ale berri honek argia ikusten duen unea berezia da oso gertatu denagatik.

Udala kaleratzen hasi berria da LAEZON deitzen den «udal informazio aldizkaria». Honen aurrean eta udalak bi aldizkariek elkar osatzen dutela eta diruz laguntzen jarraitzeko asmoa duela jakin arazi digun arren gogoeta kritiko bat egin beharrean gaude gauzak argi utzi eta behar bada gerta daitekeenari aurre egiteko.

Nekez uler dezakegu udalak orain arte LEZO aldizkariarekiko izan duen jokaera kontuan izanda (gobernu batzorde honek beti leporatu izan digu garestiegia zela, kobratu egin beharko genukeela, udalak ez duela halako gasturik bere gain hartu beharrik,...) nola kalera dezakeen orain hilabetero halako aldizkari bat dohainik. Kontuan izan gainera aldizkaritxo hori entrepresa pribatu batek egiten duela eta hilabetero kaleratuko dutela (hori bai dela garestia!).

Bestalde, aldizkaritxo berri horri udalak eman dizkion ezaugarriak aztertuz beldur gara ez ote duten LEZO aldizkariaren tokia piskanaka-piskanaka hartu nahi. Argi dago, hara, herritarren gutunak argitaratzen omen dituzte -guk beti esan izan dugu LEZO aldizkaria lezoar guztientzat zabalik dagoela eta gure lana horren adierazgarri-, dohainik banatzen dute, badu historia ataltxoa, entrebistatxoa,... . Hitz batean esanda, LEZO aldizkariaren karikaturatxo bat egin dute eta behar bada egunen batean biak gauza bera direla argudiatuz bietako bat sobran dagoela esateko -beraiek kontrolatzen ez duten hura, noski-. Baina ez jaun-andreok!! Inoiz ez dira biak berdinak izango, inoiz sekulan, LEZO aldizkariak hamar ale kaleratu ditu eta hamarrak lezoar idazleen lanari esker, sosik jaso gabe, gustoz, herriari zerbait eskeintzeko asmo hutsez. Bertan hala nahi izan duten lezoar guztien lanak argitaratu izan dira eta adierazpen askatasuna berezko ezaugarri izan du aldizkari honek.

Ez dadila inor biak gauza bera direla pentsatuz ibili. Alkatetza hau agintean dagoenetik nola edo hala LEZO aldizkaria hondoratzen ahalegindu dira, ordainketak atzeratu, diru laguntzak besterik azaldu gabe moztu, eta abar luze bat. Oraindik ez dute etsi.

Hamargarren ale hau, aurrekoa bezalaxe, lezoar eskuzabal baten diru laguntzari esker atera dugu aurrera beti ere aldizkaria herriari dohainik eta publizitaterik gabe kaleratzeko gure asmoari eutsiaz. Mila esker zuri.

Amai dezagun hitzaurre luzetxo hau. Gure nahia hemen bildutakoa zuen gozagarri eta aberasgarri izatea da eta bertan aurkituko dituzuen idazle berrien lanak gazteagoak parte hartzera bultzatzeko behar den akuilu izan daitezela.

**ON EGIN DIEZAZUELA**
**LEZO ALDIZKARIA, Lezon 1993ko apirila**

# INTRODUCCION

Con este ya son diez los números de la revista LEZO que han salido a la calle. Que cada uno saque sus propias conclusiones sobre el trabajo realizado. Nosotras/os por nuestra parte siempre hemos pretendido hacer una revista cultural, lezozale e interesante.

El momento en que se publica este número es muy significativo por las influencias que tiene en nuestra labor. El equipo de gobierno ha comenzado a publicar la «revista de información municipal» LAEZON. Ante este hecho y a pesar de que los responsables municipales nos han asegurado que ambas revistas son complementarias y por lo tanto piensan seguir subvencionando en parte esta revista LEZO, nos vemos en la necesidad de hacer una reflexión crítica para aclarar ciertos aspectos de este fenómeno y adelantarnos en la medida de lo posible a lo que pueda suceder.

Conociendo la postura de este equipo de gobierno para con esta revista (siempre han argumentado que es muy cara, que se debiera cobrar la revista, que el ayuntamiento no tiene por qué hacerse cargo del gasto,...) nos cuesta creer que ahora se decidan a publicar mensualmente una revista de esas características y además gratis. Hay que tener en cuenta que esa revista la confecciona una empresa privada y que se publica mensualmente (eso sí que es caro!).

Analizando las características de la dicha revista mucho nos tememos que quieran ir restando espacio a la revista LEZO. Veamos, dicen que publicarán las cartas de los lectores nosotras/os siempre hemos defendido que la revista LEZO está abierta a todas/os las/los lezotarras y nuestra labor es la mejor prueba-, la reparten gratuitamente, tiene su sección de historia, la entrevista,... . Hablando claro, han hecho una caricatura de esta revista para que tal vez algún día puedan eliminar una argumentando que ambas son la misma cosa y por tanto una de ellas sobra -la que no está bajo su control-. Pero eso no es así! Nunca serán iguales, nunca jamás. La revista LEZO ha publicado ya diez números y los diez gracias a la labor de escritoras/es lezoarras, sin recibir una sola peseta, por gusto, con el simple objeto de aportar algo al pueblo. Ha publicado todos los trabajos de las/los lezoarras que así lo han querido haciendo suyo el principio de libertad de expresión.

Que nadie caiga en el error de confundir ambas publicaciones. Desde que este equipo de gobierno está en la alcaldía han tratado de que desaparezca esta revista, retrasando pagos, recortando las subvenciones sin ninguna explicación,... y todavía no han cejado en su empeño.

Este número al igual que el anterior a visto la luz gracias a la generosa aportación de un lezoarra lo que nos ha permitido publicarla sin publicidad y ofrecérosla gratuitamente. Gracias a tí.

Terminamos esta introducción diciéndoos que nos gustaría que lo que aquí os ofrecemos fuera de vuestro agrado. De la misma manera deseamos que las nuevas firmas que participan en este número sean el incentivo necesario para animar a otros a seguir este camino.

**QUE OS APROVECHE**
**LEZO ALDIZKARIA, Lezo abril de 1993**

# MIGUEL DE ITURAIN PILOTUA

**XVI.** mendeko pilotu lezoarrak, Jaimes de Zamora tratatugilea barne, mundu osoko trebeenetakoak izan ziren. Maisuak ziren itsas zabaleko nabigazioan, eta oso estimatuak Espainiako gerra-ontzietarako. Itsasgizon horien bizitzari buruz, ordea, ezer gutxi dakigu, Lope de Isasti doktore lezoarrak XVII. mendean jasotako berri urriez gain. Dena dela, Hondarribiko udal artxiboan aurkitutako eskuizkribu bati esker Miguel de Iturain pilotuaren (+ 1597) bizitzaz eta heriotzaz arituko natzaizue, labur bada ere.

## I. BIZITZA

Ez dago jakiterik noiz jaio zen Miguel de Iturain, Lezoko parrokiako bataio-liburu zaharra galdu egin baitzen Frantziako gudarosteak herria armaz hartu zuenetako batean, 1638. urtean, hain zuzen. Haren emazte Maria de Landagorrieta, berriz, 1560. urte inguruan jaio zen. Lau seme-alaba izan zituzten: Juan Nuñez, itsasgizon izango zena, Martin, Domingo eta Maria. Bestalde, Miguel de Iturain beraren anaia bat ere, Juan Martin de Iturain, oso pilotu trebea izan zen.

1582. urtean kokatzen gaituzte Miguel de Iturain buruzko lehenengo berriek: Azores artxipielagoko (Portugal) San Miguel irlako itsas-batailan, non galdu baitzuen bizia Juanot de Villaviciosa zaharra almirante lezoarrak. Izan ere, Felipe II.aren flotako kapitain jenerala Alvaro de Bazan izanik, pilotu lanetarako hartu zuen honek Miguel de Iturain, Miguel de Oquendo jeneralaren agindupeko ontzidian, Sebastian de Labastida kapitainaren naoan. Aldi hartan, Bazanen gerra-ontziek erabateko garaipena lor-




*Maripoxaenea etxeko ate gainean, hau da, kale Nagusiko 6. zenbakian, hondar-erlojua, konpasa, ipar-izarra eta haize-arrosa daude harri gainean zizeldurik. Pilotuak lau gauza hauetaz baliatu ohi ziren, besteak beste, ontzia gidatzeko. (Fotografia: Imanol Zurutuza).*

tu zuten Felipe Stroci agintari frantsesaren kontra. Horren ondorioz, Espainiako erregeak lasaitasun handiagoz eutsi ahal izango zion botereari Portugal elkartu berrian, Frantzia eta Ingalaterraren zorigaitzerako.

1589. eta 1590. urteetan, Antonio de Urquiola jeneralaren agindupeko ontzidian ihardun zuen Miguel de Iturainek, Pasaiako portutik Lisboara eta handik Tercera irlara (Azores artxipielagoa), Esteban de Iguiniz kapitainaren "Nuestra Señora del Juncal" naoan; bai eta Juan Lopez de Resu eta Martin Lopez de Iribaenen naoan ere. Helburua Portugal ingelesen erasotik babestea zen. Ordurako, ordea, hondamen handia pairatua zen Felipe II.aren "Flota Garaitezina", 1588. urtean, ekaitzen eta Ingalaterrako ontzien kontra, Medina Sidoniako dukearen esperientzia ezagatik; gogor iraungo zuen oraindik itsas-gerrak, 1604. urteko pake hitzarmena izenpetu arte.

1591. urtean, hogeita hamar, hogeita hamabost bat urte zituela seguraski, flotako pilotu nagusi izendatu zuten Miguel de Iturain. Kargu berria hartuta, Antonio de Urquiola jeneralaren naoan itsasoratuko zen, ohi zuenez Pasaiako portutik, hori baitzen babeslekurik hoberena, Bizkaiko Golkoan, erregearen gerra-ontzientzat.

## II. HERIOTZA

1597. urtean berriro saiatuko zen Felipe II.a Ingalaterraz jabetzen. Aldi hartan, A Coruñako portuan bildu zen flota. Miguel de Iturain, pilotu nagusi karguan, Diego Brochero jeneralaren agindupean jarri zen, eta Pasaiatik A Coruñara nabigatu zuen, eta handik, atzera, Pasaiara, Suso, Mutio, Ambrosio eta Bertandona kapitainekin batera, itsasorako bizkotxoz hornitzera. Gero, Galizara itzulitakoan, gainerako ontziekin batera, Ingalaterrara abiatu zen, Eire inguruan barrena.

Espainiara itzulitakoan bi «zabra», hots, bi untzi arinen agintea eman zioten, Ingalaterrako kostaldera itzul zedin eta arrantzale ingelesak ekar zitzan bahiturik A Coruñara, haiek emandako berriez egoeraz jabetuko zirela uste baitzuten flotako agintariek.

Hori egindakoan, jasoko zuen azken agindua eman zion Brochero jeneralak Miguel de Ituraini: hogeita hamar marinel bere agindupean hartuta, «San Bartolomé» galeoiari laguntza emateaz arduratu beharko zuen lezoarrak. Oraingoan, ordea, itsasoak eraman zituen, bai bera, bai berarekin zihoazen guztiak ere, ekaitz handi batek harrapatu zituelarik Bizkaiko kostaldean.

Miguel de Iturainen alarguna, gaisorik eta zorpeturik, egoera larrian geratu zen, lau seme-alaba gaztetxo zituela.

**LANDER ZURUTUZA**

---

**ITURRIA**
Hondarribiko Udal Artxiboa: E/7/I/5/12.

# LEZO URREIZTIETA
## «Kontrabandista abertzalea»

Askok ezagutuko duzute akaso, Lezo izeneko gizon honen bizitza mugitu eta oparoa, bainan ala ere uste dut gure herriaren izena, kasualitatez bada ere, lau haizetara zabaldu zuen bizkaitar bizkor honek aparteko mirespena eta ezagutza merezi duela.

Lezo Urreiztieta Rekalde, Santurtzin jaio zen 1907. urtean. Aita Bergaratik joandako itsas langile bat zen eta ama berriz, Santurtziko «Fontuoso» baserriko alaba. Bergaratar hau izan zen hain zuzen garai horretan Gipuzkoan hain debozio haundikoa zen Gurutze Santuaren omenez, bere semeari «Lezo» izena jarri ziona.

Lezoren gurasoak betidanik giro abertzale batean murgildurik bizitu ziren, bainan hala ere kuriosoa da mende honen haseran, hain euskal kutsu haundia duten izenak erabat famili batean azaltzea: Joakin (zaharrena), Lezo, Arantzazu, Iñaki, Itziar (gizonezkoa), Joseba, Miren eta Gaizka.

Hasera batean aita marinel bezala aritu zen lanean, geroago lanik gabe ere gelditu zen, bainan denborarekin merkatal eta itsas munduaren



*Lezo Urreiztieta (1.907 - 1981).*

jakitun bihurtuz negozioa bere kontura jarri eta, Bilbo eta Ingalaterra arteko joan etorria, batez ere ikatza karraiatzen ibiltzen ziren bost itsas-ontziren jabe izatera iritsi zen.

Lezo ikasle txarra omen zen, hau dela eta aitak eskolako opor garaiak aprobetxatuz, berarekin batera itsas-ontzian eramaten zuen eta bertan Etxandia pilotuak klaseak ematen zizkion. Bainan bihurria izaki eta itsas lanetan aritu beharrean beste zenbait marinel lagun zituela, lurreratzen ziren bakoitzean kontrabandoko gaien sal-erosketa egiteko aprobetxatzen zuten.

Istripu baten ondorio latzak zortzi urte luzeetan jasan ondoren aita 1933. urtean hil zitzaion. Lezo semerik zaharrena zenez, ordurako Joakin hila bait zegoen, bera gelditzen da familia eta negozio buru.

Potilika eta kontrabandoa barreneraino sartuak zituen. Aitagandikan jaso zuen Euskadiren aldeko maitasuna, kontrabandorako grina berriz, berez, bere izaera eta ezinegonagatik zetorkion.

Hasera batean kontrabandoa ezagun batek ekartzen zionarekin egiten zuen, bainan geroago irabazi batzuk lortu ondoren bere kontura jarri zen lanean. Berak zioenez, ez zuen inoiz, erraza bazen ere, karabinerorik erosi, berak ere «bere kontzientziko legeak» bait zituen. Hau beti aitortzen du lege bezala, oinarrizko bi printzipio zorrozki errespetatuz: lehenengoa, kontrabandoa beti Espainiara sartzen zuen, inoiz ez Frantziara, eta bigarrena, sekula ez zuen karabinerorik erosi, luzaroan hauekin egindako tratuak arazoak ekartzen bait zituzten.

Erabilitako itsas-ontziak hauek ziren: Matxino, Carmen de Amorebieta (Frantzira jendea ateratzeko erabiltzen zuena), Concarnot (Bretainiako hondarretan ehortzia dagoena), Otzarri eta Oskorri besteak beste.

1935. urtean, gerraren usaina nabaria omen zen, eta bai talde karlistek, nola monarkikoek nahiz CEDAkoek, alderdikide zen Josetxo Renobables bitartekari bezala erabiliz, Lezorengana jotzen dute armak kontrabandoz erosi eta Bilbora ekartzeko erreguarekin.

Susmo txarra hartzen dio lan honi, eta lehenengo emanaldia burutu ondoren, berriro alderdira jotzen du, ekarritako armak dagoeneko beraiei apuntatzen zeudela,



*Euskal Flotaren "Nabarra" boua Bizkaiko kostaldean.*

hau da armak arerioentzat ekartzen ari zela argudiatuz, eta era berean erabaki tinko bat hartzen du: armak, euskal kausa defendatzen dutenentzat bakarrik ekartzea.

Gerra garaian, Lezok 14 bider hautsi zuen faxistek ezarritako itsas blokeoa, armak edo elikagaiak karraiatuz. 1936ko irailaren 24an, goizeko ordubatean iritsi zen Bizkaiko kostaldera, bainan Bilbora sartu ezin zuela ikusterakoan, Santanderreko Sardinerora jotzen du eta bertan porturatzen da 60.000 fusil eta 60.000.000 kartutxo eta eskubonba ekarriz. Oraindik Eusko Jaurlaritza behar bezala eraturik ez zegoenez, Errepublikaren esku utzi zituen, bainan kondizio bat ezarri zuen: fusil guzti horietatik 17.000, beren kartutxo eta guzti, Euskadiren defentsan ari zirenentzat gordetzeko aginduz.

Bigarren bidaiean kainoiak ekarri zituen, Poloniatik zetozen bainan Txekiarrak ziren. Partida hontako armak, Punta Galea, Matxitxako eta kostako defentsa eratzeko erabili ziren. Bidaia hau oso arriskutsua suertatu zen, itsas minen beldurrez ia kosta ikutuaz burutu bait zen. Aipatzekoa da hurrengo egunean Bilboko kanala arakatu zela, denetara 21 itsas mina bilduz, eta hauetako baten leherketaren ondorioz 32 marinel galduz.

Bilbo galdu zenean, Bartzelonara alde egin eta Prietorekin elkarrizketatu zen Bilbo askatzeko operazio militar bat proposatuz. Gerra ondoren Bretainara joan zen emazte eta semeekin, geroago Ameriketara, bainan gauzak pentsatzen zituen bezala atera ez, eta ondorioz berriro itzuli beharrean aurkitu zen.

Ezinegonak eta penak betirako nahigabetu zuten gizon haundi eta bihotz zabaleko hau. Bere trebetasun eta ausardiari esker faxisten atzaparretatik ihes egiten lagundu zituen hainbeste gizon-emakumeen esker ona, inoiz behar bezala, jaso gabeko jainko txiki honek, 1948. urtean Asturiasen, mendian ihesi bizi ziren 48 gizonekin zuzenki kontaktatu eta bere itsas-ontziz Bordeleraino eramatea lortu zuen.

Azkenean, gure herriaren izena, historian betirako ezarria utzi duen gizon haundi eta bizkor honek, 74 urtekin bere azken agurra eman zion Baionan, hain sutsuki maite izan zuen Euskal Herriari.

**KARLOS ETXEZURIETA SARASOLA**

# KOLDOBIKE GEZALA and.: LEZOAR PILOTARIA

## HAURTZAROTIK GAZTARORA

Bederatzi senideetariko zazpigarrena dugu Koldobike. Beste gainontzekoak Irene, Regino, Luis, Luke, Miren, Elixabet, Polentzi eta Xabin dira.

Gaur egun «Aizpea Taberna» dena lehen «Gure Borda» taberna zen eta bere atzekaldean frontoi ttiki bat zuenez, bertara joaten ginen pilotan aritzera garai hartako neska-mutilak. Errenteritik eta inguruko herrietatik etortzen zen jendea. Askotan goizean goiz lantokira joan aurretik ere partidua jokatuta joaten zen jendea lanera. Eta horrela bada, ni beti mutilen artean ibiltzen nintzen nire anaiak Polentzi eta Xabinekin eta Gure Borda bertakoa zen Joxe Juanekin... eta horiekin ibiltzen nintzen, gazteagoak zirelako edo,...



Horrela ikasi nuen eta Gure Bordako frontoia okupatuta zegoenean, Goiko Plazako frontoira joaten ginen. Hor ibiltzen ginen neskak oso ongi jokatzen genuen.

Eta hamabost urte nituela edo, nire ahizpa Mirenek eskola ireki zuen eta ikaslego handia joaten zitzaionez, bere laguntzaile jarri nintzen; ttikiei irakurtzen eta idazten irakasten alegia, baina «multiplicar» ikasteko garaian Mirenengana pasatzen ziren. Horrela jarraitu nuen harik eta gerla etorri zen arte, orduan, 18-19 urteko neskatxa nintzen jadanik.

Gerla etorritakoan familia osoak alde egin beharra izan genuen.

### NORA JOAN ZINETEN?

Santurtzira lehenik eta gero, Santanderra. Baina oso garai tristeak direnez, gerla garaia alde batera utziko dut.

Horrela bada, nik gero eta afizio haundiagoa nuenez Salamancara joan nintzen 1938an eta gure aitak ere galerazia zuenez Euskal Herrian bizitzea hura ere Miren ahizparekin batera Salamancara joan ziren nirekin batera.



Salamancako frontoi hartan neska-mutilak ibiliagatik oso mutil gutxi ziren eta neskak berriz, gehiago.

**BAI AL ZEN EMAKUME PILOTARIRIK EUSKAL HERRITIK JOANIK?**

Bai baziren, hemengo ikasleak, eibartarrak,... emakume ederrak izateaz gain oso ongi jokatzen zutenak gainera. Besteak Madriletik ihesi joandakoak ere baziren,... eta beste neska gehiago ere bai, orain gogoratzen ez naizen arren.

**ZAILA AL ZEN PILOTARI IZATEA GARAI HARTAN?**

Zaila ez dakit, baina oso ongi ikusia zen behintzat. Ni berriro jaioko banintz pilotaria izango nintzateke, hori ziur. Neskak nesken aurka jokatzen genuen, hori bai. Afizio handia zegoen; Bartzelonan bertan emakumeentzat bakarrik zazpi frontoi ziren.

**ZERGATIK EMAKUMEENTZAT BAKARRIK?**

Neurri ttikiagokoak zirelako, eskuzkoak bezalakoak. Askoz ere joko azkarragoa zen emakumeena, askoz ere lehenagotik bukatzen zen partidua. Adibidez, gizonezkoen «erremonteko edo xisterako» partiduak ordubete irauten bazuten, gureak 35 minutu edo,... Guk errebotea asko jokatzen genuen. Oso polita izaten zen errebotean pilota hartzea, atzeko pareta jo eta berriro buelta!

**ZENBATERA JOKATZEN ZENUTEN?**

30era. Oso-oso partidu onak jokatzen genituen. Frontoiak ttikiak izan arren lurra ispilua bezalakoa izaten zen eta pilota atera bezain laster txirristalatu egiten zen, dziiii!, di-da, di-da!, azkar-azkar, batetik bestera. Pilotak «kiski» zeritzan horietakoak izaten ziren. Zoragarria zen raketan ateratzen zuen soinua, oso polita zen. Fuerte samar jo behar izaten zen baina inolako esfortzu berezirik gabe, niretzat behintzat.

**ZERNOLAKOAK ZIREN KONTRATUAK?**

Hileko 25-26 partidu edo jokatu behar izaten genituen soldata fijo baten truke eta oso ongi irabazten bagenuen ere, dena gastatzen genuen.

Eta Salamancan hiru urtez egon ondoren, 1941ean Bartzelonara joan nintzen, eta oso denboraldi ona izan nuen baina, hortarako prestatu ere etxean prestatzen nintzen.



LUISITA
TRINI
SOLE

Parejas competidoras de este Campeonato

Arrate I y Emili
Florita y Aurora
Luisita y Pili
Trini y Bene
Sole y Pepita
Iñasi y Mari

IÑASI
MARI

Orden de los partidos de esta Competición

Noviembre: Día 3, noche
**Arrate I-Emili** contra **Florita-Aurora**
Día 5, noche
**Luisita y Pili** contra **Trini y Bene**
Día 7, noche
**Sole y Pepita** contra **Iñasi y Mari**
Día 11, noche
**Arrate I y Emili** contra **Luisita y Pili**
Día 13, noche
**Florita y Aurora** contra **Trini y Bene**
Día 15, noche
**Luisita y Pili** contra **Iñasi y Mari**
Día 17, tarde
**Arrate I y Emili** contra **Sole y Pepita**
Día 18, noche
**Iñasi y Mari** contra **Trini y Bene**
Día 19, tarde
**Florita y Aurora** contra **Luisita y Pili**
Día 21, noche
**Arrate I y Emili** contra **Iñasi y Mari**
Día 22, tarde
**Florita y Aurora** contra **Sole y Pepita**
Día 24, noche
**Arrate I y Emili** contra **Trini y Bene**
Día 25, tarde
**Sole y Pepita** contra **Luisita y Pili**
Día 26, noche
**Iñasi y Mari** contra **Florita y Aurora**
Día 27, tarde
**Sole y Pepita** contra **Trini y Bene**

PILI
BENE
PEPITA

## EZ AL ZENUTEN ENTRENAMENDURIK IZATEN?

Ezta deus ere. Etxean entrenatzen nintzen nire gisara gimnasia eginez, pesak altxatuz, eta horrela. Hori bai, egunero egunero eginez sekulako agilidadea hartu nuen. **(Hori ziurtatzeko garai hartako egunkari bateko kirol saileko komentario bat erakutsi dit egia dela frogatu ahal izateko eta bertan irakur daiteke:** «la invencible Luisita que lleva más de 40 partidos sin perder,... y que destaca por su regularidad,...»).

Ez dago ongi nik esatea, baina egia da hori, beti oso gustora geratzen nintzen partidua jokatu ondoren, barruan nuen guztia ematen nuelako.

Eta 1941ean Bartzelonara joan nintzenean berehala, kanpeonatua jokatu nuen **(ikus, programa)**.

## ETA BARTZELONATIK NORA JOAN ZINEN GERO?

Bartzelonatik Kanarietara. Hiru urte t'erdi Tenerifen eta sei hilabete Las Palmasen hura zen hango bizimodua, hura!

Behin Kanarietan nengoela, Antonio Pildain (Lezoko semea bera) obispoa han zegoen eta bisitatzera joan nintzaion eta hala galdetu zidan; ea zintzoa nintzen... Oso sinpatikoa zen eta nahi nuenean joateko, e.a., e.a. Oso ongi hartu ninduen. Oroitzen naiz bere langelan hiru argazki zituela kuadroan sarturik «Las 3 mejores ciudades del mundo» omen zirela esan zidan; Lezo-Erroma eta Las Palmas ziren, baina Lezokoa kendu egin behar omen zuen, Lezo ez zegoelako berak ezagutu zuen bezalakoa (orain ikusiko balu!). Bakarrik joan nintzen obispoarengana baina lagunek berehala jakin zuten eta orduan izugarrizko adarjotzea izan nuen.



Beste kuriositate bat. Tenerifen GUEZALA pintore famoso bat zen eta haren senitartekoa nintzelakoan edo, periodista guztiak atzetik ibiltzen nituen.

**ETA ZUEN FAMILIAKOA AL ZEN PINTORE HURA?**

Bai. Zeren eta gure bir-aitonaren familiako zati bat Kanarietara joana izan behar baitzuen. Eta gu aldiz, Bilbotik gatoz. Adrianen aitona eta gure aitaren aitona Klaudio zenak izan behar zuen Bilbotik hona etorria.

Bestalde, Kanarietan nengoela pianoa-jotzen ikasten hasi nintzen baina ariketa asko egin behar nuenez ezinezkoa zitzaidan eta orduan, pianoa utzi eta ahotsa lantzen hasi nintzen, kantuan hasi nintzen baina berehala eta zoritxarrez, Matilde Martin irakaslea minbiziak jota hil zen. Halaz ere beti maite izan dut musika, kanta,... familiakoa dugu hori.

**KANARIETATIK NORA JOAN ZINEN ORDUAN?**

Bartzelonara eta ondoren, Logroñoko «Beti Jai»ra joan nintzen. Beno, asko mogitzen nintzen, deitzen zidaten lekura joanez,... Aurrelarietan garaile izan nintzen Logroñon. **(Elixabete bere ahizpa sartu da elkarrizketan eta argazkiak ikusten hasi gara. Elixabetek dioenez Koldobikek ile horixka zuelako** «La alemana» **ere deitzen omen zioten eta inoiz ez omen zen ileapaindegira joaten, Koldobike bera arduratzen zelarik bere buruaz).**

**BAI AL DUZU JOKATZEN ARI ZINENEKO ARGAZKIRIK EDO?**

Ez. Orduan ez zen telebistarik eta gaur hainbat mediorik. Zer nahiago nukeen nik!!!. Bestelako argazkiak bai, noski.

**AZKENIK,**

Donostian ere jokatzera iritsi nintzen «Fronton Gros» zeritzan hartan, gero itxi egin baitzuten. Eskuzko frontoia bazen ere guretzat aproposa zen.

Jesus Izagirre enpresarioa zela jokatu nuen. Gizon hau Real Sociedadeko atezaina izandu zen eta erretiratu zenean frontoiez eta, arduratzen hasi zen eta orduan, Logroñotik Donostiara etorri nintzen jokatzera.

Udaran lau hilabetez edo jokatzen genuen. «Cedidas» izaten ginen, hau da, festetarako edo denbora zehatz baterako, joaten ginen beste enpresetara. Adibidez, Fallas-etan ere Valentzian jokatu izan dut.

Ongien jokatu izan dudan frontoia Valentziakoa da nere ustez. Han ikusi banindute jokatzen! **(Hemen berriro Elixabetek hartu du hitza eta gertakari bat kontatzen hasi da: Pentsa ezazu zenbaterainokoa izan zen nik ikusitakoa, frontoian partidua iragartzen zuten kartelen inguruan jendea zutik jarria Koldobike noiz pasako zain eta azaldu zenean** Viva Luisita la campeona! **oihuka, baina egunero e!)**.

Askotan lotsatu egiten nintzen eta atzeko atetik ateraten nintzen, denak zain egon arren.

Eta gure aita ere bertan egoten zen izugarri gustatzen baitzitzaion pilota, eta nire lagunek askotan esaten zidaten: Si hubieras visto a tu papá cómo le saltaban las lágrimas de emoción!

Ttikia izateak abantail handiak ekarri zizkidan, korrika handiak egiteak, asko mogitzeak, biziago izateak,... horiek denak asko bizkortzen zuen jokua.

Eta pilotari batek esaten zidan bezala: ¡No eres un cuarto de mujer y el trabajo que me dás!,... ratita más que ratita! eta horrelako laudorioak jasotzen nituen aurkakoengandik.

Eta horrela, 1953an erretiratu nintzen betirako (gaixorik nengoelako jakina!) nire ahizpa Irenen etxera Martutenera, eta hura hil zenean Lezora.

**Eta horrela, bukatutzat eman genuen pilotari bizitzari buruzko elkarrizketa, nahiz eta beste anekdota asko eta asko kontatu zizkidan, hauek, hurrengo ale baterako utziko ditugu.**

**AGUSTINA PONTESTA**

# La primera de las violencias es la injusticia... VICTOR FERNANDEZ OCHOA

## Doce años tetraplégico por una bala del Batallón Vasco Español



Hemos visitado a Víctor Fernández Ochoa, en su domicilio de Lezo, en Altamira, calle Tomás Garbizu nº 6, más que para airear a los autores, los motivos, o las circunstancias, ya demasiado divulgadas en su día por los medios de información, para dar una versión de su persona, de su vida y de su nada agradable actual situación, cuando el pasado 27 de febrero se han cumplido doce largos y penosos años alternando una cama articulada y un coche de ruedas... Pero vayamos por partes:

**-- Cómo sucedió este atentado:**

Fue un viernes, era el 27 de febrero de 1981, en Hernani, en el Bar Benta-Berri del Barrio de La Florida: el atentado fue sobre las seis y veinte de la mañana. El Bar lo regentaban dos matrimonios socios, era costumbre abrir a las seis de la mañana para desayunos, bocatas, bebidas, etc... todos los días, de lunes a sábados, excepto los domingos, que era descanso semanal. La Florida es una zona industrial y se trabajaba mucho en esas primeras horas de la mañana: Victor, como propietario y camarero se encontraba sólo, preparando los pedidos, en esos momentos, para los operarios de la Fábrica de Ladrillos Refláctarios «Aristegi», de la que uno de sus operarios ya había realizado un viaje del Bar a la empresa con bocadillos y bebidas, y cuando volvió a por el segundo viaje se encontró a Victor en el suelo, con un charco de sangre, en el hueco interior del mostrador, entre el frigo y la barra del mostrador... y, asustado, por ignorar lo que había sucedido, fue a la fábrica, que estaba muy cerca y volvió acompañado de otro operario, ambos atendieron a Victor que mantenía su lucidez, y se encontraba herido de bala con un tiro que le entró por el hombro izquierdo quedando la bala alojada tras el oido derecho. El operario subió al piso primero, vivienda del matrimonio, por el interior del Bar para avisar a la mujer de Victor, Margarita Larunbe, que no había oído nada y cuando bajó se encontró que los dos operarios de la Fábrica de Ladrillos le estaban sacando a Victor del Bar hacia la cocina para hacerle las primeras atenciones y saber que es lo que tenía realmente, y le dejaron tumbado hasta que vino DYA que fue la que le llevó a la Residencia de San Sebastián donde le tuvieron hasta las tres de la tarde, y al quedar tetraplégico, le llevaron a TOLEDO al Hospital de la Seguridad Social de Paraplégi-

cos... y desde entonces así sigue actualmente en su domicilio, con muchas complicaciones, a las que se une el ser diabético con diaria administración de insulina y está sondao permanente de orina.

Victor, gran conversador a pesar de su situación, nos explicó así el atentado: Vió entrar a un individuo que en un comportamiento extraño se apoyó rápidamente en el mostrador y le apuntó con un revolver y sin mediar palabra le disparó, huyendo... La bala, que se la extrajeron a Victor justo a los tres meses, el 27 de Mayo del 81, era parabellum 9mm. y se lo llevaron a Balística de Madrid, sin que hasta el momento le hayan comunicado desde allí, nada sobre las investigaciones que se hayan podido realizar y le dijeron que le dejarían la bala como recuerdo (vaya recuerdo), se la enseñaron pero se la llevaron a Balística.

Victor, a pesar de su situación, mantiene una resignada postura de olvido, con una «moral -así nos lo dijo- alta, sin odios a nadie, solamente indiferencia».

**-- Cómo era Víctor Fernández Ochoa y su familia:**

Nació en ECALA (Navarra), el 18 de Octubre de 1936, hijo de Victor e Irene que vivían en Lezo, pero al estallar la Guerra Civil, los bombardeos y la evacuación de Rentería y Lezo en Septiembre, al ser la madre de ECALA, se fué embarazada de Víctor y con dos hijos más a casa de sus padres, mientras el padre tuvo que acudir al frente defendiendo la democracia y la libertad en el Bando republicano con el Batallón Larrañaga. Y, en ECALA nació Víctor, circunstancialmente.

## S. O. S.
## NECESITA TU AYUDA

Quisiéramos ser breves y concisos a la hora de explicar cuales son los objetivos que perseguimos y los porqués de nuestra existencia.

Somos un grupo de personas a las que nos ha inquietado la situación que atraviesa VICTOR FERNANDEZ OCHOA. Por distintas razones estamos sensibilizados con su problemática y pretendemos llegar a todos los rincones de Euskalherria con el único propósito de tocar los sentimientos humanos de cada persona y sensibilizarlos con relación a este tema que pasamos a explicar a continuación.

VICTOR FERNANDEZ OCHOA, natural y vecino de Lezo, de 54 años de edad, se encuentra tetrapléjico (inválido total) como consecuencia de un atentado ocurrido en Hernani el 27 de Febrero de 1.981.

Tras permanecer casi 11 años en cama, con gran cantidad de complicaciones médicas, le han dado una pequeña esperanza de curación, pero para ello tiene que someterse a una operación quirúrgica en Méjico. Esto (viaje, operación y estancia) le supone a la familia de VICTOR la cantidad económica aproximada de 4.000.000 de pesetas.

Por ello y debido a que económicamente a ellos les es imposible afrontar este gasto, hemos decidido ayudarles en la medida de nuestras posibilidades, sobre todo trabajando para llegar a todo tipo de entidades y entes públicos, así como a personas particulares para que entre todos, desinteresadamente podamos hacer realidad este sueño de VICTOR. Con tal motivo se han abierto estas cuentas corrientes:

**Kutxa de Guipúzcoa: 001008783.1 - Caja Laboral Popular: 125.000788.9**

También se van a poner a la venta bonos de ayuda, en todos los establecimientos públicos.

Cualquier persona que pueda estar interesada en trabajar en este grupo que hemos formado, o para cualquier tipo de información, llamar a los teléfonos:

De 9 a 11 horas: **52 50 81** – De 14 a 16 horas: **52 48 37**

**Amigos de Víctor**

Terminada la guerra, tardó seis años en venir nuevamente a Lezo su madre con los ya tres hijos, al regresar el padre tras pasar por Francia varios años. El padre trabajaba hasta el comienzo de la guerra del 36 en La Papelera OARSO, donde al regreso de Francia no le volvieron a admitir por su condición de rojo-separatista y tras realizar como podía varios trabajos para llevar adelante la familia acabó trabajando en la Sociedad Navarra de Industrias de Acidos de Lezo y tuvieron un hijo más: En esta industria trabajó 22 años, hasta su jubilación.

Víctor, sin todavía conocer a su padre, la primera escuela que anduvo fue la de ECALA y al regresar a Lezo la de la «Universidad de Lezo» hasta los 14 años, después como pudo, como todos los hijos del Bando Republicano, trabajó en varios lugares, pescadería, escabechería, etc, hasta que a los 18 años entró a trabajar en PAISA en Rentería, en 1952 en la Calle Martin Etxeberria, hasta los 26 años en que se fue a trabajar a Alemania, en 1962, donde estuvo trabajando cinco años en STUTTGART en la empresa SEL, Standard Elektrik Lorens A.G. de montajes para correos. En unas vacaciones, en 1962, en Diciembre, se casó con Margarita Larunbe, natural de Espronceda (Navarra), y se fueron los dos a Alemania hasta el año 65, año en que regresan a Donosti y abren un Almacén de Vinos en el Barrio de Amara hasta el año 1972, pero tres años antes en 1969, a los siete años de casados, tuvieron su actual y único hijo, el 14-8-69, OSKAR RAUL, cocinero profesional en Madrid actualmente.

En 1972 abren con otro matrimonio de socios el Bar Benta-Berri de Hernani hasta el atentado que le tiene actualmente postrado en el lecho, moviendo únicamente la cabeza y el cuello, mantiene una excelente memoria, como nos lo demostró contándonos su historial.

Sobre el autor del atentado ya sabido y publicado en su día, ya que a los dos días de atentar contra Víctor (error o ensañamiento con la gente sencilla y popular) cometieron un asesinato y fueron detenidos y reivindicaron todos los hechos cometidos, entre ellos el de Víctor, como Batallón Vasco Español. Víctor acudió a un juicio en Madrid en 1985, el 7 de Junio, pero no le aclararon nada, al parecer no tiene derecho a nada, cobró a los dos años 1.000.830 pesetas del Gobierno, mientras otras victimas cobran y son mejor consideradas... Incomprensible pero así es.

**-- Curaciones:**

Para Víctor, su mejor y más resignada enfermera es su mujer, Margarita Larunbe, nos lo aprueba y nos lo confirmó rotundamente... !! SON 12 LARGOS Y PENOSOS AÑOS!!

Todas las curaciones se le han efectuado en Donostia y en Toledo, donde le extrajeron la bala y a donde acudía a revisión cada año, pero a raiz de unas piedras que por la inmovilidad se le formaron en el riñón y que le fueron extraidas en Donostia, en la Clínica de Ntra. Sra. del Pilar en 1986, ya no ha ido más a revisión a Toledo, donde le dijeron que lo que le hacían allí se podía hacer en Donostia, y se evitaba el trastorno y las dificultades por su situación del traslado hasta Toledo, y en Donostia es donde se las siguen haciendo cuando surge algún problema.

En 1991, en Diciembre, estuvieron en México, donde le operaron el día 6, con alguna mejoría casi inapreciable y con unos gastos que ascendieron a casi los cuatro millones de pesetas, aspecto económico que a nivel popular explicamos a continua-



*Víctor Fernández Ochoa hoy en día se encuentra tetraplégico*

ción con las personas que se han movido en ese marco por la situación de Víctor y por la reivindicación del atentado:

**VEAMOS:**

A raíz del viaje a México, en diciembre del 91, de Víctor para la operación quirúrgica la gente de Altamira -sus vecinos- con gente del casco de Lezo abrumados por el tema y los cuatro millones que le supuso dicha operación, formaron una comisión de «VICTORREN LAGUNAK» que se marcaron unos objetivos y plazos hasta marzo del 92.

Tras diversas reuniones, se divulgó el tema y acordaron abrir unas cuentas corrientes, enviando notas a los medios de comunicación, empresas, establecimientos, etc... dando una clara explicación de la situación de Víctor, también se dirigieron a las Instituciones: Diputación, Ayuntamiento, Cáritas... de las que no recibieron negativas, pero las contestaciones fueron más evasivas que otra cosa, no decían nada

en concreto, por lo que en esta Comisión llegaron casi a considerarlo como «tomadura de pelo», es decir que sus aportaciones fueron nulas... no aportaron nada.

Sin embargo la respuesta popular, la gente del pueblo, y la más humilde, dicha Comisión la consideraron como buena con aportaciones modestas -como hemos indicado- incluso con entregas de 20 duros y el Festival que se organizó en el Frontón de Hernani el domingo 29 de Marzo del 92, con dos interesantes partidos de pelota de aficionados de Primera uno y de Veteranos el otro, actuación de bertsolaris y trikitilaris a 500 pesetas con la puesta a la venta de entradas de Fila CERO...

«Víctorren Lagunak» animaba a participar: «En nuestro nombre y en el del propio Víctor os agradecemos a todos aquellos que con vuestra aportación haceis posible que la solidaridad no sea sólo una leyenda. Mila Esker».

Naturalmente en Hernani, lugar donde fue realizado el atentado se formó otra comisión de Amigos de Víctor, consiguiéndose en esos tres meses una importante cantidad, no la prevista, ya que no llegó a conseguirse la mitad del costo de los cuatro millones, pero estos amigos se consideran satisfechos ya que la respuesta vino con sinceridad de la gente del pueblo y fallaron las Instituciones.

Impresionados por la situación de Víctor Fernández Ochoa, vamos a finalizar este escrito con unas frases de él, que reflejó en una Carta al Director que se publicó en El Diario Vasco el 19 de noviembre del 91, diciendo:

«TENGO UNA MUJER, UNA FAMILIA Y UNA ASISTENTA SOCIAL MARAVILLOSAS QUE SON MIS MANOS Y MIS PIES. MI CABEZA, POR FORTUNA, FUNCIONA A LA PERFECCION, AUNQUE CON LOS LOGICOS ALTIBAJOS (LLAMEMOSLE DEPRESIONES)».

**RAFA BANDRES**
**Mayo 1993**

# DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN ESKAERA

Dagoeneko hasirik dagoen irakaskuntzaren erreformak, aurrez ikusten du derrigorrezko hezkuntzaren aldaketa bikoitza. Irakaskuntza, alde batetik, 16 urte arte luzatuko da eta bestetik, hezkuntza bi etapa desberdinetan zatituko da: Lehen hezkuntza (6-12 urte bitartean) eta derrigorrezko bigarren hezkuntza (12-16 urte bitartean).

Gauzak horrela, orain arte OHO-n aritu diren ikastetxeei bi aukera berri sortuko zaizkie: edo irakaskuntza 16 urte arte luza lezakete, edota beraien burua, lehen hezkuntzarako ikastetxetzat harturik, hezkuntza 12 urte arte ematea. Hala ere, ikastetxe bakoitzari zein hezkuntza iharduera moeta egokituko zaion erabaki gabe dago oraindik. Izan ere, ikustear dago oraindik mapa eskolarraren zeresana.

Egoera honetan beraz, ondoko organu eta kideok idazkin honekin bat gatoz, Lezon, derrigorrezko bigarren hezkuntzarako ikastetxea beharrezkoa dela diogunean. Horrelakorik aditzera eraman gaituzte era guztietako arrazoi pedagogiko, funtzionalak eta baita, zerbitzu publiko batek suposa dezakeenak ikusirik ere.



*Herriz aldatzeak irakaskuntza kalitatearen beherakada ekarriko luke.*

❐ Sustantzi toxiko eta janariak leku berean pilatzeak, janariak kutsatzeko arrisku larria dakar.

## 13.- ERREPIDEAK:




❐ LEZO-DONIBANE arteko errepidearen eraikuntza (zuhaitz mozketa, lur jauziak, erosioa...).

❐ Oiartzun-Astigarraga arteko errepidearen bukaera.

❐ Autopistara loturak egiteko proiektoak.

❐ Oreretatik Perurenara doan bidearen «hobekuntza» eta Oiartzun-Astigarraga errepidearekin bide gurutzea). Bailarako autobiaren proiektoa (Pasaia-Kaputxinos-Altamira-Lintzirin). Guzti honek zuhaitz, mendi, erreka, soro, etabarren suntsiketa dakar.

## 14.- EHIZA:

❐ Bailaran 5 ehiza elkarte daude, gehi Gipuzkoako Ehiztarien Federakuntza sedea, hauetatik indartsuena Txepetxa dalarik. Elkarte hauek Extremadura, Errioxan etab., ehiza esparruak dituzte. Hemengo esparrua (Añarben) orain dela gutxi itxiarazi dute.



Bailaran 3.000 ehiztari baino gehiago dago, 2.000 $m^2$ko ehiztari bat hain zuzen ere (45 m. luzera x 45 m. zabalera).

Ehiza postuak Jaizkibel (LEZO); Listorreta, Floreaga, Ardura txiki (ORERETA); Zaria, Ollaleku, Aiako Harriak (OIARTZUN); Hauei beste ehundaka ehiza postu gehituz.

Ehizak, zarata, berun eta kartutxo, hegazti akatzea, espezie desberdinen desagerketa, pertsonentzako arriskua etab. dakarzki.

## 15.- ALKANTARILLA SAREA:

❒ Bailaran sare berrikuntzari ekin diote. Oreretan ia amaiturik dago. Sarea haundiagoa izanik, gas pilaketaren arriskua ere haunditu egingo da (Guadalajara MEXIKO, 200 hildako), uholde arriskua ere haunditúz.

Lezon errekatxoak alkantarilla bihurtu nahi dituzte. Oiartzunen sarea zabalduz doa zenbait errekatxo alkantarilla bihurtu direlarik. Pasaian berrikuntzak hasiak dira.

## 16.- EREMU MILITARRAK:



❒ Bailaran bi eremu militar dauzkagu, bata Jaizkibelen eta bestea San Markosen. Aiako Harriak inguruan beste bat eraiki nahi dute. Hemen heliopuerto bat egiteko proiektoa ere badago. Maniobretako eremuak, Jaizkibel eta San Markosen gain batezere Añarben. Kaia ere erabat militarizatuta dago.

Etengabeko tiro, kañioi, etabarrez, soinu kutsadura, zuhaitz eta zenbait espezien desagerketa, suteak etab. probokatzen dituzte.

## 17.- TRENAK:

❒ Inguruan Eusko Jaurlaritzaren «TOPOA» eta Renferena dauzkagu. Hauek elektrizitate kontsumo haundia dakarte eta elektrizitate hori inpaktu haundiko iturri kutsatzaile eta erradioaktibotik dator (zentral termikoak, zentral nuklearrak, urtegiak...)

Trenbideko egurra ohian tropikaletatik eta baso epeletan moztutako zuhaitzena da. Trenbide ertzetan HERBIZIDAk botatzen dituzte, etab.

Laister Abiadura Haundiko Trena (AHT) pasako den trenbide berria eraiki nahi dute Landarbaso, Epe Fagollaga, Goiburu, Zamalbide,...tik pasatuz. Honek,

zarata gehitzea, mendi apurketak, tunel eraikuntzak, biaduktuak etab. erosioa etab. ekarriko dituzte.

## 18.- HARROBI ETA MEHATEGIAK:

❒ Jaizkibelen hondar arrobi bat dugu, berez aspaldi itxita egon beharko lukeena. Txoritokietan harrizko bi. Hauek piskanaka mendia jaten ari dira. Dinamitaren erabilpenak basarritar eta mendizaleen artean ere zauritu larriak probokatu ditu. Txoritokieta bezalako leku aberatsa izorratzen ari dira.

Mehategiei buruz, Añarben ikerketak egiten ari dira. Garai batean explotatutako mehategiek Urumea ibaia eta Añarbeko ura kutsatzen dute.

Oiartzunen ere baditugu mehategiak. Nahiz eta itxita egon, hondakinen pilek ibaiko ura kutsatzen dute.

## 19.- AÑARBE ETA INGURUKO EKOSISTEMAK:

❒ Añarbe, bertako baso garrantzitsuena da. S. Markos eta Txoritokietan, Ollalekun,... baso txikiagoak ikus ditzakegu. Eraso haundienak haidetik datozkie (Hostoak gero eta **estoma** gutxiagorekin, sustraietan gero eta «mizelo» gutxiago eta aluminio gehiago, zenbait toxiko enborrean pilaturik, $CO^2$, SOx, NOx, metal astunen gehitzea, Ozono geruzaren txikiketa eta hostoetan minbizia).

## 20.- PISTITIS:

❒ «Pistitis»a, Ollaleku (Oiartzun) eta Zaria (Oreretan) izugarrizko kaltea ari da egiten. Zaria inguruan 100 km. pista egin dira. Area osoa 1000 hektareetakoa bada, Donostia eta Iruñea lotuko lukeen 4 edo 5 metro zabalerako pista izango litzateke. Ollalekun berdina gertatzen da.

Azken aldian Jaizkibelen ere pista berriak eraiki dituzte pinua ateratzeko.

Guzti honek Erosioa, lohia gehitzea, errekak hondarrez betetzea, ibilgailuen sarrera erraztea, zenbait animaliren aldaketak (arraultzeak pistetako putzuetan jarriz, etab.).

BENO BA, ZERRENDA OSOA OSO LUZEA LITZATEKE ETA GAUZA BATZUK BESTE BATETARAKO UTZIKO DITUGU. HONEKIN, GURE INGURUA NOLA AURKITZEN DEN IKUS DEZAKEZUE. GUZTI HAU, DESARROLLISMO TXIKITZAILE ETA GIZAKI ETA NATURAREN SUNTSIZAILE HONEGATIK.

**LEZOKO EKOLOJI TALDEA**

# AURTENGO LEZOKO ZUHAITZ ETA LANDARE LANDAKETAK



*Aurten gogor ekin dute Altamiran.*

Lezoko Ekoloji taldekoek eta Udaberria iristearekin batera amaitutzat eman dute aurtengo zuhaitz eta landare landaketa. Aurtengo neguaren zati garrantzitsuena Altamira auzoari eskeini diote gehienbat, bertan txukunketa lanak (sasi mozketa, zabor bilketa...), eta ondoren eta bertako bizilagunekin 80 zuhaitz inguru berlandatu dituztelarik.

Jaizkibelgo Iparragirre inguruan ere beste hainbeste egin dute, mendi zati bat txukundu eta berpoblatuz.

Taldekoek diotenez aurten Epertxokori nahi baino denbora gutxiago eskeini diote, hemen ezkurra erein dutelarik. Esan beharra dago baitaere, landare gehienak, herriko Hazitokitik berlandatuak izan direla, tamaina ederreko landareak, eta gainontzekoak, herriko zenbait bizilagunek emandakoak. Bestalde Udalak aurtengo landaketetan huts egin duela jakinarazi nahi dute, inongo landaketarik ez bait dute egin, bai batzuk lekuz aldatu «molestagarriak» omen zirelako. Besterik gabe hona hemen aurtengo landaketen zerrenda:



*Herriko hazitokia bere fruitu onenak ematen hasia da.*

**ALTAMIRA AUZOAN:** ✓ 47 lizar
✓ 53 astigar negundo
✓ 4 makal
✓ 4 platanondo
✓ 2 astigar arrunt
✓ gereziondo bat

**IPARRAGIRREN:** ✓ 43 aritz
✓ 25 lizar
✓ 10 aranondo

**EUSKALERRIA ZUHAIZTIAN:** ✓ 5 espirea
✓ 4 bonetero japoniar

**MARKESANEAN:** ✓ Gereziondo bat

**INDUSTRIALDEAN:** ✓ 2 platanondo

# LEZOKO ZUHAITZ ETA LANDARE BEREZIAK

Atal honetan Lezoko flora berezia ezagutarazi nahi genuke; bai galtzear dauden espezieak bai babesturikoak edo oso arraroak direnak. Ea, ezagutuz gehiago babesten dugun ingurua!



*S.G.1. proiektoak arriskuan jartzen du udareondoa.*

**UDAREONDOA:** Pyrus communis L.

Altueran 20 metro artekoa, batzuetan arantzaduna. Hostoak aobatuak edo arraultz formakoak, ertzak zerratuak edo ia osoak. Loreak, hostoak baino lehenago irtetzen dira, adasken puntan korinbo edo lore multzoetan elkartuak. Martxotik maiatzera bitartean zuhaitza zuriz jazten da.

# «GIZAKIA EUSKAL KOSMOGONIA ZAHARRAREN BARRUAN»



Gizakia ez da munduaren ardatza, pieza bat gehiago baizik.

Euskal kosmogonia zaharrean den-dena osotasun baten modura hartzen zen, hitz bitan, dena bat zen, eta danok, gu eta besteak, gizakiak eta abereak, izadi osoa, izaki arruntak eta magikoak ere,... osotasun horren zati gara. Puzzle erraldoi bat osatuko bagenu bezala. Osotasun horri, puzzle horri, euskaldunok garai zaharretan «Ortzi» (edota Ortsi, Urtsi, Urtzi, Osti, Ostri,...) deitu diogu. Ortzi beraz da dagoen guztiaren izen orokorra, garen guztion izen biltzaile edo generikoa.

Gu gizakiok, gizon-emakumeok, hor gaude osotasun hortan murgildurik, beste hamaika izaki edo osagai dauden bezalaxe. Gara, Ortziren barruan garelakoz, eta bizi gara Ortzi, jainko biziduna delakoz. Gure izate bera baldintzaturik dago Ortziren izate nagusiarengatik. Bera betidanik piztuta dagoelakoz, piztuta gaude gu ere, eta betirako denez, edo hobeto esanda, inoiz itzaliko ez denez, gizakiok ere hor egongo gara beti, tankera bat hartuz edo bestea. Aurrera joanez edo gibelera, karramarroen gisa. Mendeak igaroko dira, kulturak eroriko dira, mintzairak desagertuko,... baina osagaiek, osotasun bat osatzen diguten ezkeroz, hor jarraituko dute. Batzuk agian desagertuko dira. Baliteke ere gizateria bera desagertzea, baina honek ez du, gure arbasoen konzepzio honetan, inolako garrantzirik,... osotasunak, ez bait du gizateria behar aurrera jarraitzeko. Gizateria ez da beharrezkoa, ez da ia deus, inurri baten antzekoa osotasun erraldoi batetan.

## 1.- GURE KOSMOGONIA ZAHARRAREN ZENBAIT EZAUGARRI

Judu-kristau kosmogoniaren barruan badago jainko sortzaile bat mundua egin zuena (genesia) eta egunen batetan amaiera emanen diona (apokalipsia). Beraz, konzepzio honetan munduak badu bere hasiera eta bere bukaera.



*Euskal kosmogonia zaharrean den-dena osatasun baten modrua hartzen zen.*

Euskal kosmogonia zaharraren barruan ez da horrela, osotasuna betidanik eta betirako bait dago. Osotasuna ez da inolaz ere, jainko sortzaile batek inoiz sortua izan, bera bait da jainkoa. Jainkoa ez da osotasunetik kanpo dagoen zerbait edo norbait, judu-kristau sinismenetan defendatzen den bezala, den guztia, osotasuna,... jainkoa bait da. Honela dio behintzat, gure arbaso zaharren kosmogoniak.

Honela uler daiteke, zein den gizakiari kosmogonia batean eta bestean ematen zaien izateko arrazoi ezberdina, zein den ematen zaion zeregite ezberdina. Judu-kristau kosmogonian, Jaungoikoak sortutako mundu horren jaun eta jabetzat hartzen zaion bitartean, euskal kosmogonia zaharrean berriz, osagai bat gehiagotzat hartzen zaio. Bera da bat, baina bera bezalako asko daude. Bera hor dago, baina ez da beste izakiak baino gehiago, ez guttiago ere, ezberdina baizik. Judu kristau kosmogonian, gizona, munduko erregetzat hartzen da. Bera da izakirik gorena Jaungoikoak egindako mundu hortan. Gure kosmogonia zaharrean berriz, bera ez da ez erregerik, ez printzerik, inork inoiz egin ez duen mundu hortan.

Judu-kristau kosmogonian, Jaungoikoak saritu edo zigortu egiten ditu gizonak, heriotza iristean. Hortarako, gure barruan dagoen bizi-indarra (arima) —beraiek deitzen dutena—, gure gorpu hilkorra utziz, izango da sari edo zigor horren erantzule egingo dena, beti lurrean egindako edota bere benetako damuaren arabera. Gorputza hilkorra da, ez berriz bere arima. Euskal kosmogonian antzeko zerbait esaten zaigu. Gorputz hilkor hauen barruan bizi-indarra daukagu, «gogoa» deitzen dena, eta hilezina da. Baina hemen ez dago ez saririk ez zigorrik, ez zerurik ez inpernurik,... Gainera gure gogoa ez da behin bakarrik gorputz baten barruan bizitzekoa, kristau arimarekin esaten den bezala, baizik eta betidanik eta betirako dagoen izate honetan, gogoa behin eta berriro biziko da, batzuetan gorputza batean, bestetan bestean. Jaiotza eta heriotza ez dira hasiera eta amaiera fisikotzat hartzen, jazkera berri baten hartzeko edo uzteko pausutzat baizik. Hauxe da bi kosmogoien artean dagoen beste ezberdintasun haundia.

## 2.- GIZAKIAREN «ZEREGITEA» KOSMOAREN BARRUAN

Ikusiz gero zein ezberdinak diren bi kosmogoniak, ikus dezagun zein aurkakoa den ere gizakiari bataren edo bestearen barruan ematen zaion «zeregite» edo papera.



*Gizateria ez da beharrezkoa, ez da ia deus, inurri baten antzekoa osotasun erraldoi batetan.*

Kristauentzat gizakiak mundua gobernatu behar du, justiziaz, zuzentasunez,... Bera da mundu honen ardatza eta mundua ekidadez gobernatzea da bere izatezko helburua, bere zeregitea, pekaturik urrunduz ahal duen neurrian. Gure arbaso zaharrentzat, euskaldun jentilentzat ez da horrela, ezta inolaz ere. Gizakiak ez du inolako zeregin berezirik, bere papera bakarra izate bera bait da. Bera ez da munduaren ardatza, pieza bat gehiago baizik. Eta ez du jainkoak emandako inolako agindu bete behar, bera osotasuna den jainkoaren zatia bait da. Gizakia bere izatea dela eta, jainkoturik dago, ez dago dibinitatetik urrun, bera bait da dibinitatearen zatia, beste gauza eta izaki guztiak diren bezalaxe. Ez du inolako zeregite espezifikorik, izan beharra baizik.

Eta puntu hauetan oinarriturik, ikus dezakegu argi eta garbi zein bi mundu ezberdin diren bi kosmogoniek aldarrikatzen dutenak. Zorigaitzez judu-kristauena da mundu zabalean finkatzen ari zaiguna. Zein ederra izanen litzateke bestelako mundua! Gure arbaso zaharrek defendatzen zutena alegia! Alajaina!!!

**KARLOX BARRENTSORO**

# ZER OTE DU KAMAMILAK? (eta 2)

Agindu bezala, hemen naukazue berriz Ixioren azken abenturak kontatzeko irrikitzen. Azken Gabonetan ez genuen oso alai utzi gure gizona, baina geroztik berri ugari dugu. Goazen harira.

Egia esateko, urtearen hasiera nahiko latza izan zen Ixiorentzat. Ernegaturik zebilen oso, baina ez etsita, hori ez.

Ba al dakizue Santa Ageda bezperan baserriz baserri ibili zitzaigula bere lagunekin koplak kantari?

Ohitura den bezala, Errekondotik ere pasa behar zuten (nere ustez horretxegatik apuntatu da aurten taldean). Hemen, kantatu ondoren, Marinesek eta bere ahizpak, diru pixkat eman zieten eta, nola ez, sagardo trago batzuk eskeini ere bai. Gure Ixiori Marinesek berak luzatu zion basoa eta gizajo honi, izerdiarekin edo urduritasunaren poderioz, auskalo, ezitzaion ba eskuetan irristatu eta erori! Makurtu zen azkar asko barkamena eskatuz kristalak jasotzera, baina azkarragoa izan zen Marinès, eta «amen Jesus» batean dena txukunduta zeukan. Neu ere hantxe nintzen, eta ziurtatzen dizuet biei kolore gorri ederrak atera zitzaizkiela; ongi fijatu nintzen, baina horrek ez du merito handirik, antena jarrita bai neukan.

Orduan amak, galtzak bustirik zeudela eta nolabait lehortzeko, sukaldera pasa zedin eskatu zion Ixiori. Honek harrituta utzi ninduan. Ez da inoiz oso ausarta izan, baina une hartan argi ibili zen; bi aldiz pentsatu gabe, etzuen ezetz esan, eta koplariei gero elkartuko zitzaigula esanaz, hantxe geratu zen.

Hegoaize nabarmena genuen eta etzuen beste munduko premiarik galtzak lehortzen denbora galtzeko; baina hori, duela hilabete batzuk pentsatuko zuena zen; gaur ez; gaur, dena oso diferentea da.

— Baserri ederra duzue benetan, eta sagardoa zer esanik ez!

Ixio mutilzaharra da, baina badu bere estiloa elkarrizketarako.

— Beno, konpontzen gera. Badakizu, baserriak lana handia ematen du, baina oraindik sasoi ederrean gaude eta... —amak harro xamar—.

— Askotan pasia naiz ondoko bidetik baina, egia esateko, inoiz ez nintzen desbideratu baserriraino. Aurten da lehen aldiz etortzen naizela koplariekin.

— Oso ohitura polita da —Marinesek—. Lan ederra egiten duzue horri eusten... Lezo bertakoa al zara?

— Bai, noski. Borobileko semea naiz; badakizue, errotaren ondoan dagoen baserrikoa. Ezagutuko duzue, ezta?

— Jesus, etzera ba Benantxioren semea izango? —amak—. Baduzu antza, bai; gaztetan koadrilakoak ginen; ez dut aspaldi honetan bere berririk izan. Zer moduz dabil?

— Ez da etxetik apenas ateratzen. Badakizue, nahiko lan egin ondoren, bizkarrezurrak faktura pasa dio. Hala ere, humorea mantentzen du. Horrela etortzen dira gauzak deitu gabe ere... Egun batean ekarri behar dut inguru hauetara bisita bat egitera. Gustatuko zaio, eta gehiago sagardo trago bat eskeintzen badiozue. Beno, barkatuko didazue atrebentzi honengatik, baina...

— Ez, gizona, nahi duzuenean etorri; kontu zaharrak gogoratuko ditugu eta gustora gainera; faltaría más!... Nola duzu izena, gazte?

— Inaxio, Inaxio Egiguren, baina lagunek Ixio deitzen didate.

Eta neskari begira:

— Zu Marinés zera ezta? Ezagutzen zaitut bistaz, herrian pare bat aldiz ikusi bait zaitut, eta, badakizue, lagunartean kontu-kontari, nor zinen enteratu nintzen. Gizasemeok ere nahiko txismosoak gera, ez pentsa —irrifarrez—. Eta berehala, gehiegi esan balu bezala:

— Beno, barkaidazue baina kantatzen segitu behar dut. Ea beste egin batean aita ekartzen dudan. Eskerrikasko denagatik. Agur eta beste bat arte.

— Agur, agur, nahi duzun arte —amak—.

Agurtzerakoan, maitiaren begietan zerbait berezia zegoela iruditu zitzaion gure mutilari. Ilusioa?

Hantxe zijoan Ixio saltoka eta kantari; etzeukan presarik bere lagunekin elkartzeko; arnasa sakonki hartu eta saboreatzen hasi zen aspaldi honetan espero zuen une zoragarria. Azkenean lortu zuen Marinesekin hitzegitea; orain elkar ezagutzen zuten, eta gainera berrikusteko aukera ere bazuen. Irrintzi bat eskapatu zitzaion. Gustora zegoen bere buruarekin; momentu hark itzaltzen zituen pasatako tristura eta zalantza guztiak. Belar puntta bat moztu, ezpainetan ondo kokatu, eta bazijoan, orduan bai, lagunekin kantatzera.

Nonbait, Santa Agedak merezi zuen hori eta gehiago.

— Inoiz alabarik izaten badut, Ageda izendatuko diat (agindu zion bere buruari).

Norbaitek pentsa dezake «telenobela» bat kontatzen ari naizela, baina, zer arraio!, jende «arruntari» (naiz inor ez izan arrunta) gertatzen zaizkio horrelako gauza zoragarriak. Bakoitzak dakizki bereak eta horrelakoetan ez da inorengatik aldatzen, ezta gutxiago ere.

— Haundia haiz Ixio. Mundua hirea duk (berriz beretzat).

* * *

Orain bai. Bi hilabete t'erdi pasa dira Santa Ageda bezpera famoso horretatik eta orain bai joaten dela Ixio lore bila Marinesengana. Astean behin azaltzen zaio, eta nonbait horrela kargatzen ditu maitasunaren pilak.

Elkarrizketa ere laburra eta «arrunta» izaten da, baina gure mutilak beti aurkitzen dio maiteari zerbait berezia: begirada, tonoa, orrazkera edo loreen usaina (noski, ez dago lore ederragorik azoka guztian).

— Egunon Marinés, zer duzu gaur eramateko moduan?

— Hola Ixio. Beharbada krabelin hauek? Prezio ona egingo dizut.

Gero eguraldia, zermoduz etxekoak eta agurra. Hori duk nibela elkarrizketarena! Eta zer? Ixiok esaten duen bezala: «zuek ezin duzue ulertu».

«Leku Zaharra»ko baxoerdia eta mutur pintxo pare horiek primeran sartzen zaizkio orain ere.

Karakterra ere aldatzen ari zaio. Orain ez da hain zakarra. Askoz gutxiago azaltzen da lagunekin txikiteatzera, eta hauek azkar asmatu diote goitizen bat: «Guadiana» deitzen diote, badakizue zergatik. Ez nago seguru, baina apostua egingo nuke titulu horren asmatzailea Bittor izan dela. Lezo guztia bataiatua dauka bere erara, eta beretzat ere aurkitu zuen izengoiti berezia: «Jenerala». Horretarako ere imajinazioa behar dela, baietz.

— Aizak, noiz presentatu behar diguk hire preziosa? —Lutxok—

— Jolín txiko, ké fino estás últimamente... —Bittorrek—.

Eta horrelakoak, azaltzen den bakoitzean; baina Ixiok, irrifar bat eta «pasando»... Zerbait usaintzen dute, baina ez dakite ezertxo.

⁂ ⁂ ⁂

Etzaio berehalaxe ahaztuko Ixiori apirilaren 23a. Bihotza ere «a prueba de bomba» izan behar du horrelako sustua gainditzeko. Ezta Indurainek ere.

Badakizue nolakoa den Txomin. Bazter guztiak ezagutzen ditu eta gertatzen den edozer gauzaren berri izaten du inork baino lehen. Hori meritua, hori!

Ba, esan bezala, atzo arratsaldean, hortxe azaltzen zaigu esanaz Etxeberriko parean kriston istripua izan dela, eta Errekondo neska anbulantzian eraman dutela nahiko larri.

Gure mutilzarrari, kolore bat joan eta bestea etorri, ia atake bat eman dio. Hala ere, oraingo honetan ba zekien zer egin. Taxisa bat hartu du eta hantxe joan da Donostia aldera; baina, nora? Peregrinazio txiki bat egin du Ospitalean eta gero Erresidentzian; bietan kale.

— Hemen al dago ingresatua Marinés?

Harritzekoa bada ere, ez daki bere abizena; dena dela, iruditzen zaio izenarekin nahikoa izango dela bere maitia aurkitzeko. Azkenean Poliklinikara joan da, eta pentsa dezakezue zernolako burutazioak zeraman. Atea zeharkatu orduko hortxe non ikusten duen Marinés eskailerak jeisten.

— Aibadiós! Bera duk eta! Zer arraio esan ziguk Txominek ba?

Aurrez aurre geratu dira eta zerbait esan beharko.

— Zer? Zu ere hemen, Ixio? —Marinesek—

Jarraitzen duena (hitzez hitz gertatutakoa), amoranteen antoloji batean kokatu beharko genuke nere ustez. Ixioren ausardia (orain edo inoiz ez) ez da txantxetakoa izan.

— Ba... begira, Marinés; gauzak diren bezala; zu hil zorian zinela esan didate eta egokia iruditu zait etortzea. Baina, zer gertatu da?

— Nere ahizpak istripu bat izan duela. Zorionez, klabikula bat hautsia besterik ez dauka, eta dirudienez, egun pare batean etxera bidaliko dute. Hala ere, eskertzen dizut gutaz arduratzeagatik.

Ixilune baten ondoren:

— Aizu Marinés; beharbada galdera arraroa irudituko zaizu, baina...

Behin batean, abendu aldian, Astoria zinean sartzen ikusi zintudan zure zain zeuden tipo batzuekin. Interesatzen zait nortzuk ziren jakitea.

Ezpaduzu erantzun nahi, noski, ulertuko dut...

— Astorian? Behin bakarrik izan naiz; gogoratzekoa da. Baserritarren sindikatu batean sartua nago eta batzar nagusia genuen egun hartan. Hortik ezagutzen ditut baina gutxitan gara. Baina, zer nahi zenuen jakin, izenak ala?

Ixiok arnasa sakonki hartu du, gorri xamar jarri da, atera du ximurtutako sobre zuri bat bere patrikatik (aspaldi darama sobre hau berarekin) eta emakumeari eskeini dio:

— Orduan, hau zuretzako da, Marinés. Irakur ezazu mesedez.

(Kosta zait sobrearen edukina nereganatzea, baina azkenean, naiz Ixiok pega batzuk jarri, Marinesek eskeini dit papera, kronika honetarako).

Hor dijoakizue, ba. Neri, biek hain ondo ezagutuz, malkoak ateratzen dizkit:

## DEKLARAZIOA

1) Nere buruan daukadan kezka
bertsotan nahi dut bihurtu;
gaurko ametsak behar bezala
hitz neurtuaz samurtu;
Bilintxen eran, zahar antzera
maitasun gaiak laburtu,
maitasun gaiak laburtu.

2) Joan den urtean ezagutu dut
andere bat txit bikaina;
edertasunez guztiz betea
goiko aingeruak haina;
ahots goxoa, begi alaiak,
gorputza oso liraina,
gorputza oso liraina.

3) Hura ikustean nik somatzen dut
berpizten nere kemena;
egon ezkero ikusi gabe
bi egun, zer etsipena!
nor den izar hau? nola ezagutu?
ederretan ederrena,
Marinés du izena.

4) Bertso honetan hor doakizu
proposamena nabari;
nahi al zenuke zure bizitza
behingoz josi nereari?
Hil edo bizi; altxa ala erori,
hemen naukazu urduri;
zer diozu galderari?

Marinesek beste aldera begiratu du. Bihotzak adierazten dio zertaz dijoan sobretxoaren barrenean dagoena. Eseri da eta poliki poliki atera du papera. Lotsaturik dago eta irakurtzerakoan bizkarra eman dio Ixiori. Hau, listua irentsiz behin eta berriz; emakumearen buruari itsatsiak geratu zaizkio begiak. Denbora kilometrikoa egiten ari zaio; eskuak eta bekokia izerditan dauzka.

— (enian uste hau hain latza izango zenik, dedió!)

Halako batean, maitia altxa da eta inguratu zaio. Oso lasai azaltzen da eta begietan irrifar nabarmen bat dakar.

— Aizu, kostatuko zitzaizun hau dena asmatzea, eh?

— Beno,... bai; beharbada zuk uste baino gehiago... Baina, zer diozu?

— Ba, etzaidala gaizki iruditzen. Probatu genezake.

Ixio jokoz kanpo geratu da. (Horrela izaten al da? Hau al da dena?)

— Eta... orain zer egiten da?

— Ba, aurpegia eman eta elkarrekin atera, gizona. Goazen.

Hemendik aurrera ez daukat bikotearen baimenarik zuei gehiago kontatzeko, eta, egia esan, ez nuke bere adiskidetasuna galdu nahi zuek «portera» batzuek zaretelako. Gainera, orain daude politenean, eta egoera hori beraiena bakarrik dela iruditzen zait.

Beste bat arte.

**ANTONIO MARI**

# EZINEZKO MAITASUNA

Ordubiak oraindik ez ziren izango, gure etxe zaharreko txirrinak jo zuenean. Zortzi urtetako anai gazteak erantzun zuen. Irripartsu, begiak niregantz zuzendu zituen eta bere ahots leunarekin neretzat zela ziurtatu zuen. Amak begirada gogorra bota eta arrunta zen bezela, bai aitak eta bi anai-arrebak ez erantzuteko agindua eman zuela ulertu genuen.

Aitorrek interfonoa zintzilikatu eta sukaldetik aldegin zuen nerekin batera. Horrelakoetan, garraisika hasten dira bata bestearen aurka. Amak, bihotza burnia bezain gogorra dauka, bera da jaun eta jabe, berak eramaten ditu etxeko kontuak, bidaiaren bat egin behar bada, berak antolatzen du... Aitak berriz, bihotza, ogi bustia baino biguinago dauka. Biek, Aitor eta niretzat, hoberena nahi dute, baina era desberdinean. Ama, gogor saiatzen da, eta gu lanbide munduan ahal den goren iristea nahi luke. Aitak ere gauza bera nahi du, nahiz eta senar-emazte on bat eta lanpostu egoki bat edukitzearekin nahikoa daukagula dio. Eguerdi hura, ez zen besteen desberdina izan, bukaeran, amak irabazten zuen beti.

Arratsaldean, kalera jeisterakoan, Mikel nuen zai. Mikel, hamahiru urtetako mutila da, bere bihotz eta arimak erakusten duen bezala, edozeini laguntzeko prest dago beti. Hiru hilabete daramazkigu ateratzen. Nere aitak badaki, bainan amari ez ziola esango zin egin zidan.

Begiak itxi, eta nire etorkizuna ikusten dut. Nere ama eta aita sukaldeko aulkietan eserita, nik Mikelen eskuari indarki heltzen eta nere amak, edozeini lau hortz ateratzeko prest dagoela ikusten dut.

Aita eta ni, amaren gaitasunaren aurrean. Aurrez aurrez. Une hartan, erakusten zen, etxean nork jantzitzen zituen prakak.

Txirrindak garajetik atera, eta ibilbidean zehar, bukaezinerantz hasi genuen gure abentura. Gure barruan agerturiko pentsamenduak, han urrutian ageri zen lerroa baino urrunago zihoazen. Inorren beharrik ez daukagun lurraldean, inor kezkatu edo arduratzen ez dugun eskualdean, gu, geure buruen jabe.

Baina gure amets hura, errepidearen bukaeran amaitzen zen, adreiluzko etxeen oinetan. Jendea presaka eta humore txarrez doan hirian. Ohe bakoitzaren alboan, iratzargailuak, goizero, txirrina jotzen du, herritarrek, egunero eginkizun berdinak egin ditzaten. Errukirik gabe, beraien birikak, lantegietako zikin, zabor eta keekin ondatzen dituzten bitartean. Gure herrixkan, eguzkiarekin batera esnatzen geran bitartean, gure lur hezeetako lurrak lantzen ditugun bitartean, gure gorputzak, aire garbiz betetzen ditugu, hirian hartutako kutsaduretaz garbiturik.

Hala ere ordea, hormaz beteriko zulo hartan geneukan guk behar genuen giroa. Gure adineko gazteen artean egoteak, helduen loturak askatzen zituen, gure arimak aske utziaz. Baina zoriontasun hark, ez zuen arratsaldea besterik irauten.

Txirrindak berriro hartuz, gure etxe eta baserrietarantz abiatzen ginen. Baina hemen ez zen ludia bukatzen, bien maitasuna... elkartuaz, aurrera ateratzen ginen, besteen aholku eta mehatsuak alde batera utziaz.

Eguneroko ibilbide hau egin genuen urteetan zehar, gure bizimodua erabat aldatu zen ordua arte. Garai hartan, gure gogoetak, gure etorkizunean zeuden finkaturik. Guk eraikitako geroa. Geroaldi zital eta desegokia. Gure gazte denboran, buruan geneukan etorkizunaren aurkakoa. Bataren bihotza, bestearen sentikizunaren asago.

Hemezortzi urte genituelarik, lanaren bide-siur desberdinetatik abiatu ginen; egunero ikusten genituen aurpegiak gure begietatik aldenduaz, senide eta adiskideak utziaz.

Herrialde desberdinetara zuzendu genituen gure urratsak. Une hartan banatu genituen gure sentimenduak, baina hala ere, elkarri idazten genituen gutunak, nire eskuetara heltzen zirenean, gogorki, nire bularraren aurka estutzen nituen, bihotzaren taupadek, nire maitasuna ager zezaten.

Hala ere, ez nion neure buruari inoiz barkatuko, nire bizitza eta Mikelena, horrela bukatu zitezen, bata bestearen urrun. Bakarrik nagoenean, nigar mutuak entzuten ditut nere barruan, egindako akatsa behin eta berriz gogoraraziz. Urteen joan eta etorriak, inoiz isildu ez duen kantua.

Baina bihotzetan, betirako egongo da, inork beteko ez duen hutsunea, eta elkartuko geran egunaren zai geratuko gera, egun tupustaren zain.

**LOREA INTXAURRAUNDIETA**

# EKAINEN ABENTURA



Orain dela 7 urte herri txiki batean Ekain izeneko ume bat, ba zegoela amets egin zuen: bere herriari eraso egin zioten eta inor ez zen ausartu birrerasotzen, baina Ekain bai, eta han joan zen Ekain bere lagunekin birrerasotzera. Eginkizun zaila zen, baina ez zuen konfiantza galdu eta guda hasi zen. Ekainen lagunek zulo bat egina zuten eta horregatik irabazi zuten guda, eta herrian egundaka jaia egin zuten. Orduan Ekain esnatu zen. Eta herriko jaiak ziren. Eta kukurruku ipuia bukatu zaigu.

**XABIER DORRONSORO 10 URTE**
**10 urte**

# EL ZAPATO CON OJOS

Erase una vez un zapato que tenía 2 ojos. Y estaba en una tienda. Un día estaba hablando con sus compañeros y, llegó a la tienda la señora Josefa. Y dijo:

— ¡Hola señor Juan, dáme unos zapatos!

Y él, sacó los zapatos, que tenían ojos, y ellos tiritando. Y dijo la señora:

— ¡Me los llevo!

Y los pobres zapatos se tuvieron que conformar. Un día la vecina de la señora Josefa fue a su casa y, vio que se estaban moviendo los zapatos, y empezó a gritar y se fue a su casa, y toda la gente le decía:

— ¡Qué loca está!

Entonces ella la señora Josefa, un día se puso los zapatos, y empezó a sentir unas cosas raras en los pies. Y dijo:

— ¡Bueno los voy a tirar!

Y se compró otros y, los zapatos se escaparon a la ciudad de los zapatos. Estuvieron viajando, y viajando y llegaron a la ciudad, se pusieron muy contentos y vivieron felices.

**ELISABETH NUFRIO**
**9 urte**

# AEK EGUNARI NERE LOREAK

**I**

Mila urte ta bederatzirehun
larogei ta hamabian
ez dakit zenbat mila euskaldun
bildu zan gure herrian
nahiz eta jakin ama euskera
daukagula hilzorian
oraindik ere AEK-ri esker
salbatu leike agian.

**II**

AEK eguna genduela eta
Lezon egundoko festa
berdin gabeko euskal giroa
gure herrian zuten presta
euskara maite degun hauentzat
jai ederragorik ezta
piska batean ezta ahaztuko
urrian hogeitabosta.

**III**

Goizean goizik jendea heldu zen
«Lezo» non dago galdezka
berihalaxe jarri zitzaigun
herri guztia gainezka
pozaren pozez uxatu gendun
gure bihotzeko kezka
tristerik geunden euskaltzaleak
jarririk irriparrezka.

**IV**

Egun horretan euskara gendun
herrian jaun eta jabe
bera entzuten zan leku danetan
bera zan gure errege
zahar eta gazte, haundi ta txiki
pozik gelditu gerade
egun guztia pasa bai gendun
erderarik entzun gabe.

**V**

Esan bezela egun horretan
gozatu ginaden bapo
eta arratsa gainean gendun
konturatu ordurako
euskera garbi ta jatorrean
jolastu ginadelako
ama euskerak etzun isuri
inoiz hainbat negar malko.

**VI**

Euskal kirolak bertso ta ipui
trikitixak eta dantza
Lezok bazuan garai bateko
Euskal Herriaren antza
bainan noiz arte iraungo duan
hori da nere zalantza
egun batekin nahikoa danik
inork ez dezala pentsa.

**VII**

Giro eder hori ikusi arren
ezin geldi gera trankil
ondo dakigu gure euskeraren
heriotza dala hurbil
eta gainera garbi ikusten da
askok nahi luketela hil
horrelakorik gerta ez dadin
eutsi neskatx eta mutil

**VIII**

Ez dezagula hoztutzen utzi
holako giro epela
aurrera ere jarrai dezagun
egun horretan bezela
denbora joan ta damututzia
gertatu leike bestela
AEK-k erein duen haziak
frutua eman dezala.

**LEGORBURU'TAR MARTZELINO**
**«ARGIÑANE»**

# PERNANDO AMEZKETARRAI

## JUAN JOSE SARASOLAK JARRIAK

**1**

Nere jakinduriya
agertzera nua,
eskasegiya dala
daukat damua,
aurrekuen sustraitik
artu det planua,
Pernando Amezketarra
zanaren doñua,
ill zan gizon ua
pasa da urte mua
iltz dun umanua
koplari sanua,
euzkeraren aldeko
gipuzkoanua.

**2**

Milla ta bederatzireunda
ogeita laugarren,
Uztaren amairua
ondo zetorren.
Zentenariyo pestak
luze izan arren
aurten bukatzen dira
urte bete barren,
euskaldunak emen
beida nola gauden,
zer edo zer aitormen
eman biar nuen,
lengo oitura dana
galdu baño len.

**3**

Artzairik abillena
Amezketakua,
estadu geyenetan
neurtutakua,
beste bat bizi balitz
orain alakua,
guk degu motibua
lagundutzekua,
aren manejua
ez nola naikua,
naiz boza bajua
bazuen tajua,
nun nai ez ta billatzen
orrelakua.

**4**

Txiste aundiyak ditu
Pernando guriak,
erakutsi zituen
abillidadiak,
inguratu zitzaizkan
itz larri trebiak,
abogaduak eta
prokuradoriak,
prueba dotoriak,
daude ateriak,
eskola gabiak
arrazoi obiak,
nun naitik bazituen
adiskidiak.

**5**

Juez batek etzuen
bildurtzen izketan,
seguru zegolako
bere ustetan,
amar seme-alaba
azirik gaztetan,
aita abillagorik
etzan Amezketan,
periyan askotan,
noizik bein festetan,
etxian espetan
andria kesketan,
zein ez gera erortzen
orrenbestetan?

**6**

Etxian paketsua
izanagatikan,
estimaziyo asko
tabernatikan,
plazan ere itxuraz
bertsuetatikan,
gusto eman da joan zan
mundu onetatikan,
erri batetikan
Amezketatikan
ta Azkotatikan
kanpuetatikan,
arren bentajak dira
aspalditatikan.

**7**

Abogadu abill bat
bazan Alegriyan,
ustez artakuena
Euskal-erriyan,
beste jakintsu batek
bere errabiyan,
Pernando bialdua
zuen esariyan,
bere istoriyan
sayatu zeriyan,
triste irudiyan
ala zirudiyan,
galdiak egin zizkan
inbusteriyan.

**8**

Pernandok artzekuak
zeuzkala esan ziyon,
ta zorrak eske nola
ari zaizkiyon,
besterenak aguro
barkatu zizkiyon,
bañan ontza bat urre
beria jo ziyon,
an eman baziyon
ondo zerizkiyon
artzayak sor ziyon
bakarra zor ziyon
ortzak erakutsita
alde egin ziyon.

**9**

Abogaduak pena
debalde utziya,
berak besterengatik
erakutsiya,
aguro bukatuta
orduko ausentziya,
arrazoya galtzia
zan penitentziya,
oyen potentziya
talentuz jantziya,
itzezko trantziya
ta abertentziya,
pobriak garbiyena
kontzientziya.



**Bertso hauek 1932an argitaratu ziran BERTSOLARIYA aldizkarian**

# «PARISEN GAISORIK DAUKAGUN MARK LEGASSERI BIHOTZEZ ETA SAMINEZ»

Asko izan dira mendeetan zehar
Euskal Herri zahar-berri hau
suntsitzen, menperatzen,
saiatu izan direnak.
Baina alperrik!
Gaur Euskal Herriak bizirik bait dirau.

Saiatu izan dira euskara hiltzen,
gure arima kondenatzen,
gure izaera deusezten.
Baina alperrik!
Gaur, atzo bezala, hemen garelako
euskaldun!

Eta etengabeko sokatira hontan
asko izan dira mutur batean edo bestean
lerratu izan direnak.
Zu, Mark, beti izan zaitugu gure artean,
atzo eta gaur,
tiraka, indarka,...
soka gure aldera ekarri nahian.



*Egun batean,*
*ez izatera*
*kondenaturik*
*daukaten*
*herri hau*
*izan dadin*
*behin betikoz!*

Eta lortuko dugu!
herri honek bizi nahi duelakoz,
herri honek irabazi nahi duelakoz.

Eta irabaziko dugu!
zu bezalako gudariei esker,
zu bezalako olerkariei esker,
zu bezalako kontrabandistei esker,...
zurea bezalako luma jatorrei esker.

Mark, ez zaitugu ahazten,
eta zure ondoan borrokatzen jarraitu nahi dugu.
Egun batean, ez izatera kondenaturik
daukaten herri hau
izan dadin
behin betikoz!

Aupa Mark, besarkada beroa
eta segi tiratzen soka horretatik

**JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN**

# ELKARRIZKETA

Ekiari mintzatu nintzaion lehenik
eta epeltasun hitsez erantzun zidan

Ilazkiari hurrena
eta begirada zurbila haren erantzuna

Hodeiei mintzatu nintzaien
eta kolore beltzez erantzun zidaten

Mendiari mintzatu
eta ez nuen entzun zuhaitz
kuku eta urtxintxen ihardestea

Azkenik
errekari mintzatu nintzaion
eta honek
hilzorian

ez ote genezakeen zeozer egin
ez ote genezakeen zeozer egin
zeozer egin
egin

(MUNTTAR)



# HORRELA GOAZ



Haizpeko ur tantak
tap tap
astiro dira azaleratzen

goroldio hezearen ferekaz
ibarrean beheti
poliki zein umil
erreka bilakatuz
ama izadia joanean agurtuz

Ardien basoko aska
otsoen bainutoki
jauzika eta ijika kardantxuloek
musikaz dute jazten
bidean uzten duzun errainua

Izarren ispilu dizdiratsu
etenik gabe zoaz aintzinerat
ba zoaz erreka ausarta
erreka
erre
errrrrr
doinu kuttun hori
azken finean izango da azken

Lau diru-zurruparik
azido sulfurikoz
pozoinduko zaituzte
eta zu bizi egarriz

RIP RIP RIP
itsasoratu baino lehen
RIP RIP
lau horien ongizatearen zerraldoan.

( MUNTTAR )

**ERITZI ARTIKULOAK**

* Udaberria dela eta badirudi Lezon ez dagoela arazorik. "Hala bedi" Bego horrela urte luzez.

* *Al parecer, como estamos en época primaveral no hay problemas en Lezo. "Que sigamos así mucho tiempo".*

## OHARRA:

Aurrekontuak jartzen dizkigun mugak direla eta zenbait lan argitaratu gabe utzi behar izan dugu, dena den zaudete lasai idatzi diguzuenok oraingoan atera ez badira hurrengoan aterako bai ditugu.

Hurrengo alerako ezer bidaltzeko asmoz baldin bazabiltza egizu eta bidal iezaguzu lehenbaitlehen (LEZO ALDIZKARIA, Oroitzene AEK Euskaltegia, Donibane kalea 12 behea, Lezo).

## *NOTA:*

*Debido a las limitaciones del presupuesto algunos de vuestros trabajos no han podido ser editados pero no os preocupeis que si no los hemos publicado en este lo haremos en el próximo.*

*Para los que querais mandar algún trabajo sabed que nos los podeis hacer llegar desde ahora mismo (LEZO ALDIZKARIA, Oroitzene AEK Euskaltegia, Donibane kalea 12 behea, Lezo).*


AdiERAZPEN